
IBAI-ARTE

Arrasateko Merkataritza eta Zerbitzu elkarte



EKINTZA PLANA 2014

Arrasaten 2014ko apirila

1. SARRERA

Ibai-Artek, Arrasateko Merkatari eta Zerbitzu Elkartek, 2009an hasitako elkarlanari jarraipena emateko asmoarekin honako ekintza plana aurkezten dio Arrasateko Udalari.

Aurreko urteetan egin duen bezala, elkartek herritarrek erosketak Arrasaten bertan egitea kontzientziatzeko asmoz eta elkartekide eta herriaren beraren garapenean eragin zuzena izateko asmoarekin hainbat ekimen aurrera eramatea aurreikusita dauka.

Txikizkako merkataritza eta zerbitzuek mehatxu asko dituzte gaur egun, besteak beste, hiriburuetan eta merkatal gune handietan aurki daitekeen kompetentzia eta gaur egun bizi dugun egoera ekonomiko larria. Ondorioz, azken urteak oso gogorrak izaten ari dira eta Ibai-Arte indar handiz ari da lanean mehatxu horiek gainditu nahian eta elkartekideen alboan azalduz.

Ibai-Arte lanean gogor aritu arren, guzti hori posible egiteko, ezinbestekoa da erakunde desberdinekin elkarlanean aritzea eta bide horretan, Arrasateko Udalarekin duen harreman sendoa mantendu nahi du, era berean, Eusko Jaurlaritza eta Debagoieneko Mankomunitatea ahaztu gabe.

Ondoren aurkezten den ekintza plana aurrera eramateko baliabide ekonomikoak lortzeko iturri ezberdinak bilatuko ditu Ibai-Artek, eta horien artean Arrasateko Udalarekin sinatu dezakeen balizko hitzarmenean jasoko den diru ekarpena aurki daiteke.

2. 2014 EKIMENAK

Hurrengo atalean 2014. urtean gauzatuko ditugun proiektuak aurkezten dira, bakoitzaren azalpen, helburu, egutegi eta aurrekontuarekin (agertzen diren diru kopuru guztiak **BEZ gabekoak** dira).

a. MERKEMERKAUA 2014

Emaitzak ikusita, azken edizioetan erabilitako formatu berberarekin, aurten ere merkatariak kalera aterako dira, herritarrengana hurbilduz, udalerria girotuz. 2014. urte honetan bi Merkemerkaue ospatuko dira, udazken-neguko eta udaberri-udakoa.

Bertan, saltokiak beraien kalitatezko produktuak erakusleho aurrean edo sortutako merkataritza gunetan jarriko dituzte prezio murriztuetan denboraldiko biltegiko soberakinak merkaturatzeko asmoarekin. Horretaz gain, ekitaldiak musikaz, kale animazioz, haurrentzako ekintzez, etab.-ez girotuko dira.

Otsailaren 22an burutu zen dagoeneko udazken neguko merkealdi azoka eta bezero zein herritarrak gustura agertu dira herrian sortutako giroarekin, parte hartzaile kopuruarekin, izandako eskaintzarekin eta erosleak ase geratu ziren aurkitu zituzten produktu eta salneurriak orokorrean interesgarriak iruditu baitzizkizkien.

HELBURUAK:

- Merkatarien eskura merkatal gune handiei aurre egiteko eta beraien saltokien kudeaketa errazteko tresna bat jartzea.
- Arrasateko eskaintza komertzial zabalaren promozioa egitea.
- Bezeroen esku kalitatezko produktuak oso salneurri murriztuan jartzea.
- Denboraldiko biltegiko soberakinak merkaturatzea.

EGUTEGIA:

Udazken-neguko Merkemerkaue Otsailaren 22an ospatu zen eta Udaberri-Udako Merkealdi azoka irailean egingo da. Bi egunetan zapatuz, egun osoz, eguerdian saltokiak itxi gabe.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Merkemerkaua	6.000 €
GUZTIRA	6.000 €

b. MERKATARITZA BERDEAREN ASTEA

2013ko Merkataritza Berdearen Aste barruan hainbat ekintza antolatu ziren ingurugiroaren jasangarritasunarekin lotuta. Besteak beste, saltoki eta erakusleiho batzuk gai honen inguruan apaindu ziren, aste honetan erosketak Ibai-Arteko elkartekideen saltokietan egin zituzten bezeroei telazko poltsa berrerabilgarriak oparitu zitzaizkien eta kontsumo taldeko baserritarrek baserriko produktu ekologikoz osatutako 100 otzara zozketatu ziren.

Beraz, kanpainak jendartean izan duen harrera ikusita, merkatariek inguruarekiko duten konpromisoa erakusteko, bertakoei garapen jasangarriaren abantailei buruz kontzientziatzeko eta jasangarritasun horretan neurriak hartzeko sektoreko profesionalei animatzeko helburuarekin, aurten ere horrelako ekintza bat egitea pentsatu da, oraindik zehaztasun guztiak ezarri gabe dauden arren.

HELBURUAK:

- o Arrasateko merkataritza promozionatzea.
- o Arrasateko merkataritzak garapen jasangarriarekin duen konpromisoa helaraztea.

EGUTEGIA:

Oraindik definitu gabe egon arren data berberetan errepikatzea aurreikusten da, hau da, iraileko hirugarren aste inguruan, Udalak antolatzen duen Mugikortasun Astearekin batera.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Merkataritza Berdearen Astea	6.000 €
GUZTIRA	6.000 €

c. GABONETAKO KANPAINA:

2014ko Gabonetan ere, Ibai-Artek ekintza desberdinak burutuko ditu, besteak beste, saltokiak Gabonetako argiekin apainduko dira argidun bola eta errezelekin, elkartekide eta bezeroen artean erregetako loteria banatuko da, Gabonetako otzarak zozketatuko dira, etab. Ekintza hauek burutzearen helburua Gabon giroa ez galtzea da.

Hauetaz gain, iaz bezala Gabonetan beste ekintzaren bat ere egitea aurreikusten du elkarrekin, nondik norakoak oraindik definitu gabe egon arren aukera desberdinak aztertuko dira.

HELBURUAK:

- Arrasateko merkataritza eta zerbitzuak promozionatzea, irudi bateragarri bat eskainiz eta bezeroak sarituz.
- Herrian Gabon giroa zabaltzea.
- Herritarren parte hartzea bultzatzea.
- Bezeroek Gabon erosketak herrian burutzea, gastu ihesa saihestuz.
- Bezeroak fidelizatu eta eskertu.

EGUTEGIA:

Gabon garaian eramango da aurrera kanpaina hau, abenduan hasi eta urtarrileko bigarren asteraino.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Gabonetako kanpaina	17.000 €
GUZTIRA	17.000 €

d. IBAI-ARTE TXARTELA:

Ibai-Arte txartelaren proiektuak, 2008an sortu zenak, 2014an jarraipena izango du. Txartel honek Ibai-Arteren hazkuntzan zerikusi handia izan du eta herriko sektore osorako bultzada handia izan da, denontzat elkartasun puntua izan baita.

Horrela, 2014. urtean ekimen desberdinak burutuko dira, beti ere, bezeroak sarituz, zozketekin, sariekin, promozioekin, etab. Zehazki, urrira bitartean bi pertsonentzako 42 afari zozketatuko dira, erosketak doan zozketatuko dira, osasun eta edertasun hilabetea antolatuko da, baserritarren produktuz osotutako otzarak zozketatuko dira,... Horretaz gain, erabiltzaileak puntuen ordezkari txekak jaso eta erabiltzea ere espero da. Urritik abendura bitartean burutuko diren ekintzak oraindik definitzeko daude.

Gastu guzti hauei aurre egiteko Ibai-Arte urte hasieran diru kopuru bat bideratzen du kanpaina horietara.

HELBURUAK:

- o Bezeroen fideltasuna lortzea.
- o Merkatariak batzeko euskarri bat izatea.
- o Bezeroek erosketak Arrasaten egitera bultzatzea.
- o Bezeroei abantailak eskaintzea: doako txartela, norberak aukeratutako finantza erakundearen helbideratuta izan ahal dena, erosketak 3 hilabetetan ordaintzeko aukera eskaintzen duena, erosketak egiten puntuak biltzeko aukera eskaintzen duena ondoren opariaren erosketak bonuen truke aldatzeko, Ibai-Arte Txartelarekin antolatutako ekimen eta zozketetan parte hartzea ahalbidetzen duena eta urte osoan %2ko beherapena egiten duena Arrasateko Avia Gasolindegian.

EGUTEGIA:

Urte osoan zehar egingo dira ekintza desberdinak.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Ibai-Arte Txartela ekimenak eta euskarriak	26.000 €
Trukatutako txekeak	19.000 €
GUZTIRA	45.000 €

e. IBAI-ARTE WEB ORRIA/FACEBOOK

2009. urte bukaeratik martxan dago Ibai-Arteko web orria, elkartearen eta bazkideen informazio guztiarekin. Honez gain, web orrialdean bertan elkarteak urtean zehar aurrera eramane dituen ekimen, promozio, etab.-en berri ematen da; merkatari eta elkartearen albisteez informatzen da; hemeroteka aurki daiteke; etab. Bestalde, web orria ere elkartearekin kontaktuan jartzeko bidea ere bada.

Elkarteak 2011. urtetik martxan daukan dinamika jarraiki, Ibai-Arteren Facebook orrialdean ere aurrera eramango diren ekitaldiak komunikatuko dira; Ibai-Arte txartelaren promozioak, bezero eta merkatariarentzat herriari buruzko informazio interesgarriak, sektorearentzako interesgarriak diren informazioak, etab. Honez gain, elkartekideek beraien facebook orrialdean iragarritakoa zabalduko da.

HELBURUAK:

- o Ibai-Arte eta bazkideen informazioa zabaltzea.
- o Promozio eta ekintzen informazio gaurkotua aurkeztea.
- o Bezeroen fideltasuna lortzea.
- o Elkartearekin kontaktuan jartzeko bide izatea.

EGUTEGIA:

Urte osoan zehar.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Web orrialdea	1.000 €
GUZTIRA	1.000 €

f. IBAI-ARTE EGUNA/JAIA

Udazkenean, zurrenik urriaren 11an, elkarteak Ibai-Arte Eguna edo Ibai-Arte festa antolatu nahi du. Hainbat urte dira elkartea horrelako ekimen bat antolatzea aztertzen ari dela.

Egun horretan hainbat ekintza egitea aurreikusten da, besteak beste, ingurua musika eta emanaldiez dinamizatzea, txikientzako ekintzak antolatzea, produkturen baten dastatzea antolatzea, merkataritza kalera ateratzea, etab. Guztia merkataritza dinamizatu eta ingurua dinamizatzeko helburuz.

HELBURUAK:

- Arrasateko merkataritza eta zerbitzuak promozionatzea.
- Kontsumo lokala eta arduratsua sustatzea.
- Udalerrian jai giroa sortaraztea eta egun horretan kanpo ihesa saihestea.
- Bezeroak eskertzea.

EGUTEGIA:

Printzipioz, Urriaren 11a.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Ibai-Arte festa	10.000 €
GUZTIRA	10.000 €

g. ARRASATE IREKIA

Aurten ere elkarteak proiektuari indarra ematen jarraituko dio, udalerrria girotu eta kale komertzialak era erakargarrian apaintzeko helburuarekin, elkartearen irudi bateratu bat eskaintzeaz batera. Hori dela eta, iaz egin zen bezala, aldi edo elkarteko ekintza desberdinetarako, lorontziaren itxura aldatzea da asmoa eta horretarako sustrai-lurrak beste lore edo apaingarri batzuegatik aldatzea.

Asmoa proiektuan gero eta elkartekide gehiagok parte hartzea da eta kaleak lorontziz janztea, hori dela eta oraindik lorontziak ez dituzten elkartekideei hauek ezartzera animatuko zaie.

HELBURUAK:

- Udalerriko merkataritzaren erakargarritasuna handitzea.
- Kanpo ihesa saihestea.

EGUTEGIA:

Urte osoan zehar.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Arrasate irekia	2.000 €
GUZTIRA	2.000 €

h. MUNDUMIRA

Aurten MUNDUMIRA, MUNDUKO KULTUREN JAIA, Arrasaten izango da maiatzaren 30, 31 eta ekainaren 1ean eta Ibai-Arte honen partaide izango da. Egun horietan zehar, "Ibai-Arte" gunea osatuko da eta bertan haur eta gazteentzako ekintzak antolatuko dira (Altura Parkea, Kutxen dorrea, Ohe elastikoak eta slackline) eta tailerrak (xaboiaren sorkuntza eta Txokolatzeko taloak). Ekimena Ibai-Arte antolatutakoa dela ikusi eta aldi berean elkarrekin promozionatzeko asmoz Ibai-Arteko banderak erabiliko dira gunea mugatzeko.

HELBURUAK:

- Arrasateko merkataritza promozionatzea.
- Udalerrian ospatuko den kultura jaian elkartearen presentean egotea.
- Bezeroengana hurbiltzea.

EGUTEGIA:

Maiatzaren 30, 31 eta ekainaren 1a.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Mundumira	1.000 €
GUZTIRA	1.000 €

i. IBAI-ARTEKO BANDERAK

Elkarteak Ibai-Arteko 18 bandera egin ditu antolatzen diren ekintzetan erabili eta elkartearen promozionatzeko. Lehen aldiz otsailean burutu zen Merkemerka azokan erabili ziren.

HELBURUAK:

- Arrasateko merkataritza promozionatzea.
- Elkartearen egindako ekintzak mugatu, identifikatu eta ezagutzera ematea.

EGUTEGIA:

Urte osoan zehar erabiliko dira ekintza desberdinetan.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Ibai-Arteko banderak	3.000 €
GUZTIRA	3.000 €

j. PRESTAKUNTZA

Urtero bezala, Ibai-Artek bere elkartekideen profesionaltasuna hobetzeko asmoarekin formazio plan bat eramango du aurrera. Elkarrekin prestakuntza-akzio eta jardunaldi desberdinak aztertzeko asmoa du, ahal den neurrian merkatariarentzako egunerokorako interesgarriak diren ikastaroak Arrasaten bertan eta doan eskaintzeko.

Oraindik zeintzuk izango diren zehaztu gabe dauden arren, bazkideen formazioa trebatzeko elkarrekin ikastaro eta jardunaldi desberdinak antolatu edo zabalduko ditu.

HELBURUAK:

- Elkartekideen profesionaltasuna hobetzea.
- Merkatari eta zerbitzuei zuzendutako formazioan trebatzea.
- Ibai-Arteko kideen ezagutza handitzea.

EGUTEGIA:

Urte osoan zehar.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Prestakuntza	1.000 €
GUZTIRA	1.000 €

k. BESTE EKIMEN BATZUK

Aurretik aurkeztutako ekimen nagusiez gain, Ibai-Artek urtero bezala beste ekintza batzuk aurrera eramango ditu, bai antolatzaile bezala eta baita babesle bezala. Horien artean ondokoak aurkitu ahal izango ditugu:

- **ARDO BIRA EDO PINTXOPOTEA**

2008. urte amaieran Ibai-Arteren ekimenez martxan jarri zen Ardo Bira izeneko egitasmoa, bertan, ostegun iluntzetan zenbait taberna *Ardo ondua + tapa €1ean* eskaintzen hasi ziren eta ordutik indarrean dagoen

ekimena da. Honen helburua herritarrak ostegun iluntzetan kalera irtetea bultzatzea da, garai bateko txikiteo giroa berreskuratzeko eta, bide batez, herriko kaleak biziberritzeko.

○ HARREMAN TONBOLA

Azken urteetan errepikatzen den beste ekimen bat Harreman Tonbolarena da. Hemen, Harreman GKE da antolatzailea eta Ibai-Arteko bazkideek tonbolan zozketatzen diren opariak doan ematen dituzte. Bildutako dirua Indiako proiektu batera bideratzen da. Aurten, Harreman Tonbola Maiatzaren 10ean ospatuko da.

○ ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Arrasateko Udalak antolatzen duen Erakusleiho Lehiaketan Ibai-Arteko elkartekideek erakusleihoak jarriz hartzen dute parte, baita epaimahai bezala eta horretaz gain, hirugarren saria ere ematen du.

○ BASERRITARREN AZOKA

Arrasateko Udalaren ekimenez hilabeteko hirugarren larunbatean egiten den azoka honetan Ibai-Arteren partehartzeak bazkideek beraien saltokietan kartelak jartzean eta kartel horiek ordaintzean datza.

Hemen aurkeztutako ekimen guztiez gain, urtean zehar aurkeztu daitezkeen beste edozein ekimen berrietara ere irekita dago elkartea.

3. MERKATARITZA DINAMIZATZEKO BULEGOA

2014. urtean ere, Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoak Debagoiena osoari eskainiko dio zerbitzua.

Aurreko ekitaldietan izandako jarduna errepikatuko da bulegoan. Hau da, merkataritza elkartek aholkatu, dinamizazio, formazio eta diru laguntzen alorrean; merkataritza sektoreko profesionaleri eskura dituzten diru laguntzen berri eman, hauen kontsultak aztertu, aholkatu; Debagoieneko Mankomunitatearekin elkarlanean sektoreari zuzendutako jardunaldiak prestatu, etab.

Diru ekarpen aldetik, 2014. urterako 38.500 €-ko diru laguntza emango du Eusko Jaurlaritzak kontzeptu honetarako, baina hala ere, horrek ez du Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoaren ardura daraman teknikariaren kontratazio kostu guztia estaltzen. Ondorioz, 2014. urtean Debagoienean dauden lau merkataritza elkartek kostu guztia estaltzeko falta diren gutxi gorabeherako 7.100€-ak elkartek bakoitzaren bazkide kopuruaren arabera ordainduko dituzte. Hala ere, eta orain arte gertatu den bezala, teknikari horren kontratazioa Ibai-Arteren esku gelditzen da.

Bestalde, aurreko urtean ere, Eusko Jaurlaritzak merkataritzan Aholkulari Teknikoen Prestakuntzarako Programaren bitartez bekadun bat esleitu dio bulegoari.

4. AURREKONTUA

IBAI - ARTE AURREKONTUA 2014			
GASTUAK		SARRERAK	
Merkemerkaua	6.000,00	Bazkideak	31.920,00
Merkataritza Berdea	6.000,00	Arrasateko Udala	31.000,00
Gabonetako kanpaina	17.000,00	Eusko Jaurlaritza Merkagune	16.800,00
Ibai-Arte Txartela: promoción + carteleria	26.000,00	Eusko Jaurlaritza Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoa	38.500,00
Ibai-Arte txartela Txekeak	19.000,00	Merkemerkaua	2.600,00
Web orria	1.000,00	Ibai-Arte txartela	17.000,00
Mundumira	1.000,00	Beste batzuk	3.500,00
Ibai-Arte festa	10.000,00		
Arrasate irekia	2.000,00		
Prestakuntza	1.000,00		
Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoa	45.600,00		
Banderak	3.000,00		
Beste batzuk	3.720,00		
GASTUAK GUZTIRA	141.320,00	SARRERAK GUZTIRA	141.320,00

5. ONDORIOAK

Txosten honetan Ibai-Artek, Arrasateko Merkatari eta Zerbitzu Elkartek, 2014. urterako prestatu duen ekintza plana aurkeztu da. Bertan, aurreko urteetako ildoari jarraitu zaio, batez ere herriko eguneroko bizitzan presente egoteko helburuan oinarrituz eta herritarren parte hartzea bultzatuz.

Ibai-Artek beharrezko ikusten du herritarrak kontzientziaztea, Arrasaten duten merkataritza eta zerbitzu sektorea indartsua dela eta eskaintza zabala dagoela ikustea, izan ere betidanik Arrasateko merkataritzak izan duen mehatxu handienetako bati aurre egitea bilatzen baita, hau da, beste herri eta hiriburu batzuetara dagoen gastu ihesa.

Aurten ere, bizi dugun egoera latza kontuan hartuz, asmo horrekin bideratu du Ibai-Artek ekintza plana. Elkartearen proiektu estrategiko dira udalerriko merkataritza eta zerbitzuak promozionatzea; erakargarritasuna handitzea; udalerrian giroa sortzea; kontsumo lokala eta arduratsua sustatzea; bezeroen fideltasuna lortzea; etab. eta guzti horrekin gastu ihesa ekiditea.

Laburbilduz, Ibai-Artek garrantzi berezia ematen dio herriari eta herritarrei, argi baitauka horrek ondoren merkataritza eta zerbitzu sektorean ondorio positiboa izango duela.

IBAI-ARTE

Arrasateko Merkataritza eta Zerbitzu elkarte



EKINTZA PLANA 2014

Arrasaten 2014ko apirila

1. SARRERA

Ibai-Artek, Arrasateko Merkatari eta Zerbitzu Elkartek, 2009an hasitako elkarlanari jarraipena emateko asmoarekin honako ekintza plana aurkezten dio Arrasateko Udalari.

Aurreko urteetan egin duen bezala, elkartek herritarrek erosketak Arrasaten bertan egitea kontzientziatzeko asmoz eta elkartekide eta herriaren beraren garapenean eragin zuzena izateko asmoarekin hainbat ekimen aurrera eramatea aurreikusita dauka.

Txikizkako merkataritza eta zerbitzuek mehatxu asko dituzte gaur egun, besteak beste, hiriburuetan eta merkatal gune handietan aurki daitekeen kompetentzia eta gaur egun bizi dugun egoera ekonomiko larria. Ondorioz, azken urteak oso gogorrak izaten ari dira eta Ibai-Arte indar handiz ari da lanean mehatxu horiek gainditu nahian eta elkartekideen alboan azalduz.

Ibai-Arte lanean gogor aritu arren, guzti hori posible egiteko, ezinbestekoa da erakunde desberdinekin elkarlanean aritzea eta bide horretan, Arrasateko Udalarekin duen harreman sendoa mantendu nahi du, era berean, Eusko Jaurlaritza eta Debagoieneko Mankomunitatea ahaztu gabe.

Ondoren aurkezten den ekintza plana aurrera eramateko baliabide ekonomikoak lortzeko iturri ezberdinak bilatuko ditu Ibai-Artek, eta horien artean Arrasateko Udalarekin sinatu dezakeen balizko hitzarmenean jasoko den diru ekarpena aurki daiteke.

2. 2014 EKIMENAK

Hurrengo atalean 2014. urtean gauzatuko ditugun proiektuak aurkezten dira, bakoitzaren azalpen, helburu, egutegi eta aurrekontuarekin (agertzen diren diru kopuru guztiak **BEZ gabekoak** dira).

a. MERKEMERKAUA 2014

Emaitzak ikusita, azken edizioetan erabilitako formatu berberarekin, aurten ere merkatariak kalera aterako dira, herritarrengana hurbilduz, udalerria girotuz. 2014. urte honetan bi Merkemerkaue ospatuko dira, udazken-neguko eta udaberri-udakoa.

Bertan, saltokiak beraien kalitatezko produktuak erakusleho aurrean edo sortutako merkataritza gunetan jarriko dituzte prezio murriztuetan denboraldiko biltegiko soberakinak merkaturatzeko asmoarekin. Horretaz gain, ekitaldiak musikaz, kale animazioz, haurrentzako ekintzez, etab.-ez girotuko dira.

Otsailaren 22an burutu zen dagoeneko udazken neguko merkealdi azoka eta bezero zein herritarrak gustura agertu dira herrian sortutako giroarekin, parte hartzaile kopuruarekin, izandako eskaintzarekin eta erosleak ase geratu ziren aurkitu zituzten produktu eta salneurriak orokorrean interesgarriak iruditu baitzitzaizkien.

HELBURUAK:

- Merkatarien eskura merkatal gune handiei aurre egiteko eta beraien saltokien kudeaketa errazteko tresna bat jartzea.
- Arrasateko eskaintza komertzial zabalaren promozioa egitea.
- Bezeroen esku kalitatezko produktuak oso salneurri murriztuan jartzea.
- Denboraldiko biltegiko soberakinak merkaturatzea.

EGUTEGIA:

Udazken-neguko Merkemerkaue Otsailaren 22an ospatu zen eta Udaberri-Udako Merkealdi azoka irailean egingo da. Bi egunetan zapatuz, egun osoz, eguerdian saltokiak itxi gabe.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Merkemerkaua	6.000 €
GUZTIRA	6.000 €

b. MERKATARITZA BERDEAREN ASTEA

2013ko Merkataritza Berdearen Aste barruan hainbat ekintza antolatu ziren ingurugiroaren jasangarritasunarekin lotuta. Besteak beste, saltoki eta erakusleihu batzuk gai honen inguruan apaindu ziren, aste honetan erosketak Ibai-Arteko elkartekideen saltokietan egin zituzten bezeroei telazko poltsa berrerabilgarriak oparitu zitzaizkien eta kontsumo taldeko baserritarrek baserriko produktu ekologikoz osatutako 100 otzara zozketatu ziren.

Beraz, kanpainak jendartean izan duen harrera ikusita, merkatariek inguruarekiko duten konpromisoa erakusteko, bertakoei garapen jasangarriaren abantailei buruz kontzientziatzeko eta jasangarritasun horretan neurriak hartzeko sektoreko profesionalei animatzeko helburuarekin, aurten ere horrelako ekintza bat egitea pentsatu da, oraindik zehaztasun guztiak ezarri gabe dauden arren.

HELBURUAK:

- o Arrasateko merkataritza promozionatzea.
- o Arrasateko merkataritzak garapen jasangarriarekin duen konpromisoa helaraztea.

EGUTEGIA:

Oraindik definitu gabe egon arren data berberetan errepikatzea aurreikusten da, hau da, iraileko hirugarren aste inguruan, Udalak antolatzen duen Mugikortasun Astearekin batera.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Merkataritza Berdearen Astea	6.000 €
GUZTIRA	6.000 €

c. GABONETAKO KANPAINA:

2014ko Gabonetan ere, Ibai-Artek ekintza desberdinak burutuko ditu, besteak beste, saltokiak Gabonetako argiekin apainduko dira argidun bola eta errezelekin, elkartekide eta bezeroen artean erregetako loteria banatuko da, Gabonetako otzarak zozketatuko dira, etab. Ekintza hauek burutzearen helburua Gabon giroa ez galtzea da.

Hauetaz gain, iaz bezala Gabonetan beste ekintzaren bat ere egitea aurreikusten du elkarrekin, nondik norakoak oraindik definitu gabe egon arren aukera desberdinak aztertuko dira.

HELBURUAK:

- Arrasateko merkataritza eta zerbitzuak promozionatzea, irudi bateragarri bat eskainiz eta bezeroak sarituz.
- Herrian Gabon giroa zabaltzea.
- Herritarren parte hartzea bultzatzea.
- Bezeroek Gabon erosketak herrian burutzea, gastu ihesa saihestuz.
- Bezeroak fidelizatu eta eskertu.

EGUTEGIA:

Gabon garaian eramango da aurrera kanpaina hau, abenduan hasi eta urtarrileko bigarren asteraino.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Gabonetako kanpaina	17.000 €
GUZTIRA	17.000 €

d. IBAI-ARTE TXARTELA:

Ibai-Arte txartelaren proiektuak, 2008an sortu zenak, 2014an jarraipena izango du. Txartel honek Ibai-Arteren hazkuntzan zerikusi handia izan du eta herriko sektore osorako bultzada handia izan da, denontzat elkartasun puntua izan baita.

Horrela, 2014. urtean ekimen desberdinak burutuko dira, beti ere, bezeroak sarituz, zozketekin, sariekin, promozioekin, etab. Zehazki, urrira bitartean bi pertsonentzako 42 afari zozketatuko dira, erosketak doan zozketatuko dira, osasun eta edertasun hilabetea antolatuko da, baserritarren produktuz osotutako otzarak zozketatuko dira,... Horretaz gain, erabiltzaileak puntuen ordezkari txekuek jaso eta erabiltzea ere espero da. Urritik abendura bitartean burutuko diren ekintzak oraindik definitzeko daude.

Gastu guzti hauei aurre egiteko Ibai-Artek urte hasieran diru kopuru bat bideratzen du kanpaina horietara.

HELBURUAK:

- o Bezeroen fideltasuna lortzea.
- o Merkatariak batzeko euskarri bat izatea.
- o Bezeroek erosketak Arrasaten egitera bultzatzea.
- o Bezeroei abantailak eskaintzea: doako txartela, norberak aukeratutako finantza erakundearen helbideratuta izan ahal dena, erosketak 3 hilabetetan ordaintzeko aukera eskaintzen duena, erosketak egiten puntuak biltzeko aukera eskaintzen duena ondoren opariaren erosketak bonuen truke aldatzeko, Ibai-Arte Txartelarekin antolatutako ekimen eta zozketetan parte hartzea ahalbidetzen duena eta urte osoan %2ko beherapena egiten duena Arrasateko Avia Gasolindegian.

EGUTEGIA:

Urte osoan zehar egingo dira ekintza desberdinak.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Ibai-Arte Txartela ekimenak eta euskarriak	26.000 €
Trukatutako txekeak	19.000 €
GUZTIRA	45.000 €

e. IBAI-ARTE WEB ORRIA/FACEBOOK

2009. urte bukaeratik martxan dago Ibai-Arteko web orria, elkartearen eta bazkideen informazio guztiarekin. Honez gain, web orrialdean bertan elkarteak urtean zehar aurrera eramane dituen ekimen, promozio, etab.-en berri ematen da; merkatari eta elkartearen albisteez informatzen da; hemeroteca aurki daiteke; etab. Bestalde, web orria ere elkartearekin kontaktuan jartzeko bidea ere bada.

Elkarteak 2011. urtetik martxan daukan dinamika jarraiki, Ibai-Arteren Facebook orrialdean ere aurrera eramango diren ekitaldiak komunikatuko dira; Ibai-Arte txartelaren promozioak, bezero eta merkatariarentzat herriari buruzko informazio interesgarriak, sektorearentzako interesgarriak diren informazioak, etab. Honez gain, elkartekideek beraien facebook orrialdean iragarritakoa zabalduko da.

HELBURUAK:

- o Ibai-Arte eta bazkideen informazioa zabaltzea.
- o Promozio eta ekintzen informazio gaurkotua aurkeztea.
- o Bezeroen fideltasuna lortzea.
- o Elkartearekin kontaktuan jartzeko bide izatea.

EGUTEGIA:

Urte osoan zehar.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Web orrialdea	1.000 €
GUZTIRA	1.000 €

f. IBAI-ARTE EGUNA/JAIA

Udazkenean, zurrenik urriaren 11an, elkarteak Ibai-Arte Eguna edo Ibai-Arte festa antolatu nahi du. Hainbat urte dira elkartea horrelako ekimen bat antolatzea aztertzen ari dela.

Egun horretan hainbat ekintza egitea aurreikusten da, besteak beste, ingurua musika eta emanaldiez dinamizatzea, txikientzako ekintzak antolatzea, produkturen baten dastatzea antolatzea, merkataritza kalera ateratzea, etab. Guztia merkataritza dinamizatu eta ingurua dinamizatzeko helburuz.

HELBURUAK:

- Arrasateko merkataritza eta zerbitzuak promozionatzea.
- Kontsumo lokala eta arduratsua sustatzea.
- Udalerrian jai giroa sortaraztea eta egun horretan kanpo ihesa saihestea.
- Bezeroak eskertzea.

EGUTEGIA:

Printzipioz, Urriaren 11a.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Ibai-Arte festa	10.000 €
GUZTIRA	10.000 €

g. ARRASATE IREKIA

Aurten ere elkarteak proiektuari indarra ematen jarraituko dio, udalerrria girotu eta kale komertzialak era erakargarrian apaintzeko helburuarekin, elkartearen irudi bateratu bat eskaintzeaz batera. Hori dela eta, iaz egin zen bezala, aldi edo elkarteko ekintza desberdinetarako, lorontziaren itxura aldatzea da asmoa eta horretarako sustrai-lurrak beste lore edo apaingarri batzuegatik aldatzea.

Asmoa proiektuan gero eta elkartekide gehiagok parte hartzea da eta kaleak lorontziz janztea, hori dela eta oraindik lorontziak ez dituzten elkartekideei hauek ezartzera animatuko zaie.

HELBURUAK:

- Udalerriko merkataritzaren erakargarritasuna handitzea.
- Kanpo ihesa saihestea.

EGUTEGIA:

Urte osoan zehar.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Arrasate irekia	2.000 €
GUZTIRA	2.000 €

h. MUNDUMIRA

Aurten MUNDUMIRA, MUNDUKO KULTUREN JAIA, Arrasaten izango da maiatzaren 30, 31 eta ekainaren 1ean eta Ibai-Arte honen partaide izango da. Egun horietan zehar, "Ibai-Arte" gunea osatuko da eta bertan haur eta gazteentzako ekintzak antolatuko dira (Altura Parkea, Kutxen dorrea, Ohe elastikoak eta slackline) eta tailerrak (xaboiaren sorkuntza eta Txokolatzeko taloak). Ekimena Ibai-Arte antolatutakoa dela ikusi eta aldi berean elkarrekin promozionatzeko asmoz Ibai-Arteko banderak erabiliko dira gunea mugatzeko.

HELBURUAK:

- Arrasateko merkataritza promozionatzea.
- Udalerrian ospatuko den kultura jaiari elkartearen presentzia egotea.
- Bezeroengana hurbiltzea.

EGUTEGIA:

Maiatzaren 30, 31 eta ekainaren 1a.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Mundumira	1.000 €
GUZTIRA	1.000 €

i. IBAI-ARTEKO BANDERAK

Elkarteak Ibai-Arteko 18 bandera egin ditu antolatzen diren ekintzetan erabili eta elkartearen promozionatzeko. Lehen aldiz otsailean burutu zen Merkemerka azokan erabili ziren.

HELBURUAK:

- Arrasateko merkataritza promozionatzea.
- Elkartearen egindako ekintzak mugatu, identifikatu eta ezagutzera ematea.

EGUTEGIA:

Urte osoan zehar erabiliko dira ekintza desberdinetan.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Ibai-Arteko banderak	3.000 €
GUZTIRA	3.000 €

j. PRESTAKUNTZA

Urtero bezala, Ibai-Artek bere elkartekideen profesionaltasuna hobetzeko asmoarekin formazio plan bat eramango du aurrera. Elkarreak prestakuntza-akzio eta jardunaldi desberdinak aztertzeko asmoa du, ahal den neurrian merkatarietzako egunerokorako interesgarriak diren ikastaroak Arrasaten bertan eta doan eskaintzeko.

Oraindik zeintzuk izango diren zehaztu gabe dauden arren, bazkideen formazioa trebatzeko elkarreak ikastaro eta jardunaldi desberdinak antolatu edo zabalduko ditu.

HELBURUAK:

- Elkartekideen profesionaltasuna hobetzea.
- Merkatari eta zerbitzuei zuzendutako formazioan trebatzea.
- Ibai-Arteko kideen ezagutza handitzea.

EGUTEGIA:

Urte osoan zehar.

AURREKONTUA:

GASTUAK	
Prestakuntza	1.000 €
GUZTIRA	1.000 €

k. BESTE EKIMEN BATZUK

Aurretik aurkeztutako ekimen nagusiez gain, Ibai-Artek urtero bezala beste ekintza batzuk aurrera eramango ditu, bai antolatzaile bezala eta baita babesle bezala. Horien artean ondokoak aurkitu ahal izango ditugu:

- ARDO BIRA EDO PINTXOPOTEA

2008. urte amaieran Ibai-Arteren ekimenez martxan jarri zen Ardo Bira izeneko egitasmoa, bertan, ostegun iluntzetan zenbait taberna *Ardo ondua + tapa €1ean* eskaintzen hasi ziren eta ordutik indarrean dagoen

ekimena da. Honen helburua herritarrak ostegun iluntzetan kalera irtetea bultzatzea da, garai bateko txikiteo giroa berreskuratzeko eta, bide batez, herriko kaleak biziberritzeko.

○ HARREMAN TONBOLA

Azken urteetan errepikatzen den beste ekimen bat Harreman Tonbolarena da. Hemen, Harreman GKE da antolatzailea eta Ibai-Arteko bazkideek tonbolan zozketatzen diren opariak doan ematen dituzte. Bildutako dirua Indiako proiektu batera bideratzen da. Aurten, Harreman Tonbola Maiatzaren 10ean ospatuko da.

○ ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Arrasateko Udalak antolatzen duen Erakusleiho Lehiaketan Ibai-Arteko elkartekideek erakusleihoak jarriz hartzen dute parte, baita epaimahai bezala eta horretaz gain, hirugarren saria ere ematen du.

○ BASERRITARREN AZOKA

Arrasateko Udalaren ekimenez hilabeteko hirugarren larunbatean egiten den azoka honetan Ibai-Arteren partehartzeak bazkideek beraien saltokietan kartelak jartzean eta kartel horiek ordaintzean datza.

Hemen aurkeztutako ekimen guztiez gain, urtean zehar aurkeztu daitezkeen beste edozein ekimen berrietara ere irekita dago elkartea.

3. MERKATARITZA DINAMIZATZEKO BULEGOA

2014. urtean ere, Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoak Debagoiena osoari eskainiko dio zerbitzua.

Aurreko ekitaldietan izandako jarduna errepikatuko da bulegoan. Hau da, merkataritza elkartek aholkatu, dinamizazio, formazio eta diru laguntzen alorrean; merkataritza sektoreko profesionali eskura dituzten diru laguntzen berri eman, hauen kontsultak aztertu, aholkatu; Debagoieneko Mankomunitatearekin elkarlanean sektoreari zuzendutako jardunaldiak prestatu, etab.

Diru ekarpen aldetik, 2014. urterako 38.500 €-ko diru laguntza emango du Eusko Jaurlaritzak kontzeptu honetarako, baina hala ere, horrek ez du Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoaren ardura daraman teknikariaren kontratazio kostu guztia estaltzen. Ondorioz, 2014. urtean Debagoiengan dauden lau merkataritza elkartek kostu guztia estaltzeko falta diren gutxi gorabeherako 7.100€-ak elkartek bakoitzaren bazkide kopuruaren arabera ordainduko dituzte. Hala ere, eta orain arte gertatu den bezala, teknikari horren kontratazioa Ibai-Arteren esku gelditzen da.

Bestalde, aurreko urtean ere, Eusko Jaurlaritzak merkataritzan Aholkulari Teknikoen Prestakuntzarako Programaren bitartez bekadun bat esleitu dio bulegoari.

4. AURREKONTUA

IBAI - ARTE AURREKONTUA 2014			
GASTUAK		SARRERAK	
Merkemerkaua	6.000,00	Bazkideak	31.920,00
Merkataritza Berdea	6.000,00	Arrasateko Udala	31.000,00
Gabonetako kanpaina	17.000,00	Eusko Jauriaritza Merkagune	16.800,00
Ibai-Arte Txartela: promoción + carteleria	26.000,00	Eusko Jauriaritza Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoa	38.500,00
Ibai-Arte txartela Txekeak	19.000,00	Merkemerkaua	2.600,00
Web orria	1.000,00	Ibai-Arte txartela	17.000,00
Mundumira	1.000,00	Beste batzuk	3.500,00
Ibai-Arte festa	10.000,00		
Arrasate irekia	2.000,00		
Prestakuntza	1.000,00		
Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoa	45.600,00		
Banderak	3.000,00		
Beste batzuk	3.720,00		
GASTUAK GUZTIRA	141.320,00	SARRERAK GUZTIRA	141.320,00

5. ONDORIOAK

Txosten honetan Ibai-Artek, Arrasateko Merkatari eta Zerbitzu Elkartek, 2014. urterako prestatu duen ekintza plana aurkeztu da. Bertan, aurreko urteetako ildoari jarraitu zaio, batez ere herriko eguneroko bizitzan presente egoteko helburuan oinarrituz eta herritarren parte hartzea bultzatuz.

Ibai-Artek beharrezko ikusten du herritarrak kontzientziaztea, Arrasaten duten merkataritza eta zerbitzu sektorea indartsua dela eta eskaintza zabala dagoela ikustea, izan ere betidanik Arrasateko merkataritzak izan duen mehatxu handienetako bati aurre egitea bilatzen baita, hau da, beste herri eta hiriburu batzuetara dagoen gastu ihesa.

Aurten ere, bizi dugun egoera latza kontuan hartuz, asmo horrekin bideratu du Ibai-Artek ekintza plana. Elkartearen proiektu estrategiko dira udalerriko merkataritza eta zerbitzuak promozionatzea; erakargarritasuna handitzea; udalerrian giroa sortzea; kontsumo lokala eta arduratsua sustatzea; bezeroen fideltasuna lortzea; etab. eta guzti horrekin gastu ihesa ekiditea.

Laburbilduz, Ibai-Artek garrantzi berezia ematen dio herriari eta herritarrei, argi baitauka horrek ondoren merkataritza eta zerbitzu sektorean ondorio positiboa izango duela.